

Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure lanaren funtsezko jarduerak hauek dira:

- Plataforma edo Sareko jarduerak: Oso garrantzitsua da sare sozialak ondo kudeatzea, kontrolatzea eta sustatzea, azken batean gure proiektua aplikazio bat da. Hau da, erlazio zuzena dauka mundu horrekin, sare sozial bat bezala ere planteatu dugulako. Gainera, erakargarriak diren slogan bat, logo bat, izen bat... pentsatu eta sortu beharko ditugu. (Azken ideia hori ekoizpenarekin ere erlazionatuta dago).
- Ekoizpena: Birtualki konbinazio ezberdinak sortzeko gai izan beharko gara, beraz, bilaketa sakon bat egin beharko dugu eta estilo desberdinak adierazten dituzten “outfit”-ak sortu beharko ditugu. Gainera, plataforma osoaren planteamendua, diseinua, baliabideak,... sortu beharko ditugu. Azkenik, “link” bat sortzea beharrezkoa izango dugu, bezeroek aplikazioa deskargatzeko aukera eduki dezaten. (Hauek ere sare sozialekin erlazionatu ditzakegu).
- Arazoak konpontzea: Bazkideek aplikazioaren inguruko zalantza guztiak argitzeko gai izan beharko gara: jantziak nondik eta nola lortu, noiz jantzi daiteke konbinazio bakoitza, aplikazioan zehar nola mugitu, konbinazio aukerak nola eta non gorde... bezalako galderentzako erantzunak bilatu beharko ditugu.